

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. HOTELAK ETA LANDETXEAK. 2020KO EKAINA

Euskadiko AEko hotel-establezimenduak ari dira pixkanaka jarduera berreskuratzen, 2020ko ekainean

372 establezimenduk ostalaritza-jardueraren bat izan dute, eta 89.823 ostatu-gau kontabilizatu dira 2020ko ekainean, 2020ko maiatzeko ia hirukoitza

Pasa den ekainaren 21ean alarma-egoera amaitu ondoren, eta hotelak eta establezimendu turistikoak jendeari berriz irekitzeko maiatzaren 9ko aginduan (SDN/399/2020) ezarritako mugekin eta aurretiko baldintzekin, sektore horren jarduera igotzen joan da, pixkanaka, ekainean.

Testuinguru horretan, Euskadiko AEn 372 establezimenduk hotel-jardueraren bat izan dute ekainean, eta 246 establezimendu itxita egon dira hil osoa. Zifra horiek, 2020ko maiatzean ikusitakoak baino nabarmen hobeak badira ere, oraindik 2019ko hil berean erregistratutakoetatik oso urrun daude; orduan, 578 establezimendu kontabilizatu ziren jarduerarekin, eta 36 itxita, hainbat motibo tarteko.

Jarduera izan duten eta itxita mantendu diren hotel-establezimenduak. COVID19 aldia

	EUSKAL A.E.		ARABA/ÁLAVA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
2020	Jarduerarekin	Itxita	Jarduerarekin	Itxita	Jarduerarekin	Itxita	Jarduerarekin	Itxita
Ekaina	372	246	46	29	141	94	185	123
Maiatza	188	430	20	55	80	156	88	219
Apirila	56	563	6	69	29	207	21	287
Martzoa	532	87	62	13	206	30	264	44
Ekaina 2019	578	36	68	7	221	13	289	16

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Lurralde historikoen arabera, joera orokortua da; Araban, maiatzan, 20 establezimenduk izan zuten jarduera eta, ekainean, 46k; Bizkaian, maiatzan, 80 establezimenduk izan zuten jarduera eta, ekainean, 141ek, eta, azkenik, Gipuzkoan, maiatzan, 88 establezimenduk izan zuten jarduera eta, ekainean, 185ek. Hala ere, zifra horiek 2019ko ekainekoak baino nabarmen baxuagoak dira, eta urtebete lehenago zabalik egon ziren establezimenduen bi heren inguru dira; orduan, Araban 68 establezimenduk izan zuten jarduera, 221ek Bizkaian eta 289k Gipuzkoan.

2020ko ekainean izan diren sarrerak eta ostatu-gauak direla eta, 2019ko hil bereko zifrekin erkaketarik egiten bada, agerian uzten da COVID19ak Euskadiko AEko hotel-sektorean izan duen eragin handia. 2020ko ekaineko sarrerak 47.669 izan dira, 89.823 ostatu-gau, eta aurreko urtean, berriz, 298.247 sarrera eta 581.962 ostatu-gau. Krisiak aurtengo ekainean aurreko urteko hil beraren aldean izan duen eragina oso antzekoa izan da hiru lurraldeetan: Araban sarrerak % 78,3 jaitsi dira eta % 76,4 ostatu-gauak; Bizkaian, % 85,2 sarrerak eta % 85,3 ostatu-gauak, eta, Gipuzkoan, % 84,5 sarrerak eta % 86,0 ostatu-gauak.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako gaualdiak, sarrerak, batez besteko egonaldia, betetze-mailak eta errentagarritasuna. 2020ko Ekaina

	Gaualdiak		Sarrerak		Batez besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
							plazaka		gelaka		ADR (eurotan)		RevPar (eurotan)	
	2020/06	m/m-12 (%)	2020/06	m/m-12 (%)	2020/06	2019/06	2020/06	p.p.*	2020/06	p.p.*	2020/06	m/m-12 (%)	2020/06	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	89.823	-84,6	47.669	-84,0	1,88	1,95	23,1	-39,9	32,2	-43,2	59,8	-41,08	19,3	-74,82
Estatukoak	74.998	-74,6	40.230	-74,0	1,86	1,90	-	-	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	14.825	-94,8	7.439	-94,8	1,99	2,00	-	-	-	-	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	16.085	-76,4	8.151	-78,3	1,97	1,81	22,2	-31,0	30,8	-34,7	52,8	-32,15	16,3	-68,09
Estatukoak	13.809	-70,3	7.024	-72,3	1,97	1,83	-	-	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	2.276	-89,5	1.127	-90,8	2,02	1,76	-	-	-	-	-	-	-	-
Vitoria-Gasteiz	12.234	-75,4	5.671	-78,3	2,16	1,90	21,8	-33,1	32,0	-37,7	50,7	-26,81	16,2	-66,40
BIZKAIA	38.406	-85,3	20.201	-85,2	1,90	1,91	23,8	-36,4	33,8	-40,7	60,1	-35,31	20,3	-70,65
Estatukoak	34.253	-75,5	18.150	-75,5	1,89	1,88	-	-	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	4.153	-96,6	2.051	-96,7	2,02	1,95	-	-	-	-	-	-	-	-
Bilbao	20.174	-87,7	11.774	-86,6	1,71	1,87	24,3	-40,6	33,5	-46,4	67,3	-36,60	22,6	-73,41
GIPUZKOA	35.332	-86,0	19.317	-84,5	1,83	2,04	22,9	-47,1	31,2	-48,8	62,7	-46,88	19,6	-79,28
Estatukoak	26.936	-75,2	15.056	-72,7	1,79	1,97	-	-	-	-	-	-	-	-
Atzeritarrak	8.396	-94,2	4.261	-93,8	1,97	2,09	-	-	-	-	-	-	-	-
Donostia / San Sebastián	12.435	-91,9	7.705	-89,1	1,61	2,16	22,3	-57,2	28,4	-60,6	73,5	-52,24	20,9	-84,74

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea
Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

2020ko maiatzarekin erkatuta, bai sarrerak bai ostatu-gauak nabarmen hazi dira; sarrerak 7.764 izatetik 47.669 izatera igaro dira, eta ostatu-gauak 30.049 izatetik 89.823 izatera. Jardueraren berraktibazioa agerian geratu da hiru lurralde historikoetan. Araban, 2020ko maiatzean, 1.790 sarrera eta 7.278 ostatu-gau zenbatu ziren, eta, ekainean, 8.151 sarrera eta 16.085 ostatu-gau. Bizkaian, maiatzean, 2.448 sarrera izan ziren, eta, ekainean, 20.201; maiatzean, 11.486 ostatu-gau, eta, ekainean, 38.406. Gipuzkoan, azkenik, ekaineko sarrerak eta ostatu-gauak 19.317 eta 35.332 izan ziren, hurrenez hurren, eta, maiatzean, 3.526 eta 11.285.

Euskadiko AEn Estatuko bidaiarien 74.998 sarrera erregistratu ziren, eta atzeritarren 14.825, ekainean. Atzerriko egoiliarren sarrerak sarrera guztien % 15,6 dira, eta 2019an, hil berean, ehuneko hori % 48,1ekoa zen.

Batez besteko egonaldia 1,88 egunekoa izan da azken ekainean, 2019ko ekainekoaren behetik, orduan 1,95 egunekoa izan baitzen. Araban igo egin da, iaz 1,81 egunekoa izan zen eta, aurtengo ekainean, 1,97 egunekoa. Bizkaian batez besteko egonaldiak ez du ia aldaketarik izan (1,91 egun 2019ko ekainean eta 1,90 egun 2020ko ekainean), eta, Gipuzkoan, batez besteko egonaldiak behera egin du (2019ko ekainean 2,04 egun eta, pasa den ekainean, 1,83).

Plazen arabera okupazio-maila dela eta, ehuneko 39,9 puntu egin du behera EAE osorako; 2019ko ekainean % 63,1 izan zen eta aurtengo ekainean, % 23,1. Lurraldeen arabera, plazen arabera okupazio-mailak % 22,2koa, % 23,8koa eta % 22,9koa dira, hurrenez hurren, Arabaren, Bizkaia eta Gipuzkoaren kasuetan, eta beherakadak -hurrenkera berean-, ehuneko 31 puntukoa, 36,4koa eta 47,1ekoa.

Landetxeen bi herenek jardura izan dute 2020ko ekaineko egunen batean

COVID-19aren krisiak **landetxeetan** izan duen eragina hoteletan ikusitakoaren antzekoa izan da. Hala, ekaineko egunen batean ostatua eskaini duten establezimenduak 285 izan dira, eta, 2019ko ekainean, 372 izan ziren. 2019ko ekainean landetxeen % 88,6 egon zen zabalik eta, aurtengo ekainean, % 66,6. Berriz, 143 ostaturik itxita jarraitu dute aldi osoan zehar, eta, 2019ko ekainean, 48 egon ziren itxita.

Hala ere, aurreko hilaren aldean, 2020ko maiatzaren aldean, jardueran gorakada nabarmena ikusten da; izan ere, hil horretan jarduera izan duen ostatu-kopurua hazi egin zen, maiatzean 167 izatetik ekainean 285 izatera.

Jarduera izan duten eta itxita mantendu diren landetxeak. COVID19 aldia

	EUSKAL A.E.		ARABA/ÁLAVA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
2020	Jarduerarekin	Itxita	Jarduerarekin	Itxita	Jarduerarekin	Itxita	Jarduerarekin	Itxita
Ekaina	285	143	68	37	87	42	130	64
Maiatza	167	260	30	75	54	74	83	111
Apirila	31	396	3	102	11	117	17	177
Martzoa	329	99	89	16	94	35	146	48
Ekaina 2019	372	48	95	7	111	16	166	25

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Euskadiko AEko landetxeetan 5.063 sarrera izan ziren 2020ko ekainean. Datu horiek eta 2019ko ekainekoak oso bestelakoak dira, orduan 16.035 izan baitziren; beraz, ekainean indarrean egon diren prebentzio-neurrien inaktuak jarraitu du landetxeetako jardueran eragin handia izaten. Hala ere, landetxeetako sarrera-kopurua 2020ko maiatzean erregistratutako 996 sarrerak baino nabarmen handiagoa da.

Euskal AEko landetxeetako gaualdiak, sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2020ko Ekaina

	Gaualdiak		Sarrerak		Batez besteko egonaldia		Plazakako betetze-maila (%)	
	2020/06	m/m-12 (%)	2020/06	m/m-12 (%)	2020/06	2019/06	2020/06	p.p.*
EUSKAL AE	14.847	-60,1	5.063	-68,4	2,93	2,32	17,3	-11,5
Araba/Álava	2.837	-58,1	867	-76,3	3,27	1,85	15,1	-7,2
Bizkaia	4.620	-61,2	1.496	-68,0	3,09	2,54	17,7	-13,0
Gipuzkoa	7.390	-60,2	2.700	-64,9	2,74	2,41	18,1	-12,9

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Lurralde historikoen arabera, Arabak, ekainean, 867 sarrera eta 2.837 ostatu-gau erregistratu zituen; Bizkaia, 1.496 sarrera eta 4.620 ostatu-gau, eta Gipuzkoak, 2.700 sarrera eta 7.390 ostatu-gau. Zifra horiek 2019ko ekainekoan oso azpitik daude, baina agerian uzten dute hiru lurraldeetan ari dela jarduera berraktibatzen.

COVID-19-AREN KRISIAK ETH-ETAN IZAN DUEN ERAGINARI BURUZKO OHARRA

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak **COVID-19**ak eragin duen osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratu du. Ondoren hartu diren salbuespenezko neurriek eragin zuzena izan dute establezimendu turistiko hartzaileen ohiko jardueran. Itxiera ia erabatekoa izan zen, harik eta maiatzaren 9ko SND/399/2020 Agindua argitaratu zen arte; bertan, mailaz mailako irekiera mugaturako oinarriak ezartzen dira.

Pasa den ekainaren 21ean alarma-egoera amaitu ondoren, eta hotelak eta establezimendu turistikoak jendeari berriz irekitzeko maiatzaren 9ko aginduan (SDN/399/2020) ezarritako mugekin eta aurretiko baldintzekin, sektore horren jarduera igotzen joan da, pixkanaka, ekainean.

Egoera horrek ekarri du ETH-ak eraikitzeko behar den informazioa eskuratzeko ahalegina handiagoa izatea, bai informazioa biltzeko eta tratatzeko ardura duten langileen aldetik, bai, batik bat, inkesta bete duten establezimenduen aldetik.

Eustat-ek eskerrak eman nahi dizkie elkarlanean jardun duten establezimendu guztiei, egin duten ahaleginagatik, egoerak ezohikoak izan badira ere. Haiei esker, informazio hau zabaldu da, eta, haren bidez, hartutako neurriek sektorearen gainean izan dituzten ondorioak kuantifikatu dira.

Ekaineko zabalkundea berriz ere da ohikoa; berriz ere sartu dira estatistika-taula guztiak eta datu-bankua, baina estatistikako sekretuaren ondoriozko murrizketekin.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62